

## **GAZTELUGATXE DONIENERA JOATEKO PROMESA-III**

*Anton Erkorekak Bermeon 1986an bildutako kondaira zaharra*

Arrietatik Gaztelugatxe Donienera joateko, Atxurra baserriaren ondotik igarotzen ziren.

Behin baten, Atxurra baserriko alaba ardiekin etxera zetorrela, gizon bat liburuarekin otoitz egiten ikusi zuen. Seguruenez arimak izango ziren Iñaki Deuna bezpera zen eta.

Alabak esan zion aitari:

- Aita, atzetik oso gizon zuri bat etorri zait otoitz egiten eta barrura sartu naiz ardirik gabe.
- Baina, umetxo, non utzi dituzu ardiak, bada?
- Hor datoz ardiak.
- Eta zer? Eta zer izan da, bada?
- Zuria baina handia.

Ikaratuta. Aitak esan zion:

- Bai umetxo, horrek Donienera joaten dira.
- Eta nondik?
- Arrietatik.

**Anton Erkoreka**

Etnografía de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000